

## 1.- Ongi-etorri ikasturte berrira!

Familia agurgarria!

Oporraldia amaituta, erronkaz beteriko ikasturtea hastera goaz!

Ongi etorri, bada, eta aurrera!



## 2.- Ikasturte berriaren antolaketaren bilera

Gaurko bileran, Hezkuntza Sailak ikastetxeei helarazitako neurri sanitarioak eta higienikoak kontuan hartuta, ikasturtearen plangintza landuko da. Edukiera osatu da, baina familia batzuk tokirik gabe geratu direnez, ordu berean beste bilera bat egitea erabaki da, HH3 gelan. Bat euskaraz izango da eta bestea gazteleraz. Bertaratu ahal izateko, [hemen klik eginez izena eman beharko da](#). Izena eman duten pertsonak soilik etor daitezke. Horrez gain, [hona hemen bileran landuko den informazioa](#).



Derrigorrezkoa izango da musukoa jantzita etortzea eta puntuala izatea bilera guztiak egoki jarraitu ahal izateko. Bestetik, bertan adieraziko diren segurtasun neurriak jarraitzea eskertuko da.

## 3.- DBH-ko ikasleen hasiera data

Eusko Jaurlaritzaren zuzentarauak jarraituz, DBH 3. eta 4. mailako ikasleek ez dute ikasturtea hasiko **irailaren 15**era arte eta aurkezpena ere egun berean egingo da. DBH 1. eta 2. mailako ikasleei dagokienez, ez dago aldaketarik uztailan bidalitako egutegiari dagokionez. Aurkezpena irailaren 4an izango da 11:00etan eta klaseak 7an hasiko dira.



## 4.- Eskola-kiroleko bilera deialdia

Ikasturte hasiera hementxe dugula eta bilera batera deitzen zaituztegu 2020-21 ikasturteko ESKOLA KIROLAREN informazioa azaldu eta partekatzeko asmoz. Bilera ikastolako **jangelan** izango da, **irailak 14an**, honako ordutegian:

- LH1- LH4: 17:00 tan
- LH 5 - DBH 2: 18:00 tan

Bileraren antolaketa egokirako asistentzia konfirmatu beharko da galdetegi hau **irailaren 10 aurretik** betez, [egin klik hemen](#), eta esanez zein ordukoan parte hartuko duen; egoeraren ezaugarriak direla eta, familia bakoitzeko kide bakar bat bertaratzea eskertuko genizueke.



## 5.- Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, **liburuak, ikastolako lehenengo egunetan banatuko zaizkie**. Beraz, ez dute aparteko egun batean etorri beharko ikastolara liburuak jasotzera. Liburuekin batera, paper bat banatuko zaio ikasle bakoitzari sinatuta ikastolara bueltatzeko, liburu guztiak jaso dituela adierazten duelarik.

**Bigarren zatiaren kobrantza, irailean** egingo dela jakinarazten da.



Gazteleraz irakurri nahi baduzu,  
Para leer en castellano,

